

Hilabete luzeak dira Salburuak Bere Sukaldea Plataformak auzoan sukalde propioa izan eta bertako ikastetxe guztietako jangelak hornitzeko asmoarekin proiektua publikoki aurkeztu genuenetik. Aldez aurretik, plataformatik eragile sozial, politiko eta sindikalekin proiektua bizkar hezurtzen duen dokumentua partekatzeko lana hartu genuen ere, Lakuako Hezkuntza Sailari zein Gasteizko udalari, gure arduradun politiko gisa, zuzenean interpelatu genielarik proiektua bideratzeko agenda zein bide orria zehaztea eskatuz. Era berean, udal hauteskundeetan testuinguruan, gutun ireki bat bidali genien alderdi politiko guztiei gure planteamendu eta asmoak mahaigaineratuz, eta beste behin ere, negoziazioaren bidea irekitzeko eskatuz.

Hilabeteak joan hilabeteak etorri, administrazioen erantzunik gabe jarraitzen dugu tamalez. Gure Platera Gure Aukera plataformarekin elkarlanean eta beronen babes eta sostengu guztiarekin garatu dugu orain arteko ibilbidea, gure proiektuari zentzu eta testuinguru orokorrago bat eman eta norabidea ez galtzeko asmoarekin. ELA eta LAB sindikatuekin zein EH Bildurekin kontaktu erronda positiboa gauzatu genuen; eta PSErekin ere azaleko kontaktuak izan genituen.

Baina gainontzeko alderdien partetik ez dugu berririk izan eta Lakuako Hezkuntza Saila zein Gasteizko udala isilik mantendu dira orain arte. Egoera hau kezkarerekin bizi da plataformaren baitan eta auzoko hezkuntza komunitateetan; izan ere, arduragabekeria eta utzikeria zantzuak somatzen ditugu jokaera honen atzean.

Salburuako hezkuntza komunitateek bat egin dugu bete-betean proiektu honekin. Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek eta klaustroek, Ordezkaritza Organo Gorenek (OOG) eta familiek bat egin dugu sintonia osoan proiektuaren inguruan. Burdinbide auzo elkarrekin ere bat egin du planteamendurekin eta elkartasun guztia adierazi digu. Eta beste hezkuntza komunitate batzuetatik, gurekin harremanetan jarri dira proiektuaren inguruan oso interesaturik. Gainera, udaberrian zehar gauzatu genituen inkestek argi adierazten zuten familien gehiengo zabalak proiektua babesten eta berresten zutela:

Eta datuak eztaba daezinak dira jaun-andreak; inkestaren gauzapenean familien parte hartzea %75etik gorakoa izan zen. Administrazioek, guk baino hobeto dakizue zeinen zaila den edozein ekimenetan parte hartzea bermatzea eta sustatzea; azken udal hauteskundeetako abstentzio datuei erreparatzea besterik ez daukaguz. Eta gu, parte hartzeari dagokionean, datu horien oso gaintetik mugitu gara.

Era berean, inkesta bete duten familien proiektuarekiko adostasun maila %99,7koa izan da. Eta parte hartze aktibo bat izateko, lan-taldeetan integratzeko zein estrategia desberdinen garapenean eragiteko familia asko agertu dira prest.

Gauzak horrela, beste behin ere Lakuako Hezkuntza Sailari eta Gasteizko udalari gaiari eusteko eta egoerak exijitzen duen mailara egoteko eskatzen dizuegu.

Agendak koordina ditzagun eta urtariletik aurrera negoziazio mahai bat jar dezagun martxan sukalde hori non, zelan eta zein epeetan eraikiko den adosteko. Horrelakorik egingo ez bagenu, auzoko hezkuntza komunitateek, familiek bereziki, ez genuke ulertuko, eta plataforma bezala, ezinbestean, bestelako urratsak ematera behartuta egongo ginateke.

Gure auzoak behar bizi bat adierazi dizue. Herriak, eskaera argi bat luzatu dizue.

Ulertuko duzen bezala, gure ikasle eta seme-alaben elikadurak ikaragarri kezkatzen gaituen gai bat da eta eskaerari tinko eutsiko diogu zuek, arduradun politiko gisa, urrats irmo eta sendoak eman bitartean. Argi daukagu gaia bideratzea borondate politiko kontua besterik ez dela. Izan ere, ikuspegi tekniko batetik bideragarria eta errealia den planteamendu batetaz hitz egiten ari gara. Eman ditzagun pausoak elkarrekin, bada.

Azpimarratzea ere testuinguru honetan, eskola jantokietara loturiko ikasturte hasierako gertaera guzti horiek, garraiatutako janariaren kalitate ezak eta jantokiko erabiltzaile diren familien haserre eta kezka orokortuak gure planteamenduak berresten dituela zalantzarik gabe. Guk urte hasieran abiatutako bidea jantoki ereduaren paradigma aldaketarako giltza dela argi ikusten ari gara. Gure seme-alaben elikadura, osasuna, formakuntza, zaintza eta ziurtasuna eskola jantokien testuinguruan azkeneraino defendatuko dugu eta ez diogu inori, inolaz ere, horrekin jolasten utziko.

Horregatik, Gasteiz hiriko hezkuntza komunitate guztiei dei egiten dizuegu auzoz-auzo, ikastetxez-ikastetxe proiektuak garatu eta gure norabide beretsuan urratsak ematen has zaitzeten. Salburuak Bere Sukaldea Plataformak elkarlanean aritzeko eta esperientziak partekatzeko borondate guztia adierazten dizue lerro hauen bitartez. Jarri gurekin harremanetan eta elkarrekin bidea egiteko konpromezua adierazten dizuegu guztioi. Elkarrekin indartsuagoak izango garelako: antola gaitezen hezkuntza komunitateak!

Hace ya varios meses desde que la plataforma Salburuak Bere Sukaldea presentó públicamente un proyecto con el objetivo de que Salburua tenga su propia cocina en el barrio y abastezca a los comedores de todos sus colegios. Previamente, desde la plataforma, tomamos la responsabilidad de compartir con los agentes sociales, políticos y sindicales el documento que culmina el proyecto, interpelando directamente al Departamento de Educación de Lakua y al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, como responsables políticos, solicitando que explicitasen tanto la agenda de orientación como la hoja de ruta. Asimismo, en el contexto de las elecciones municipales, enviamos una carta abierta a todos los partidos políticos haciéndoles llegar nuestros planteamientos y aspiraciones, y solicitando, una vez más, la apertura de la vía de la negociación.

Con el paso de los meses, y lamentablemente, seguimos sin respuesta por parte de las administraciones. Gracias al apoyo y colaboración de la plataforma Gure Platera Gure Aukera hemos ido recorriendo nuestro camino, con la intención de dar un sentido y contexto más general a nuestro proyecto y no perder el rumbo. Hicimos una ronda de contactos positiva tanto con ELA y LAB como con EH Bildu, teniendo además contactos superficiales con el PSE.

En cambio, no hemos tenido noticias del resto de partidos y tanto el Departamento de Educación de Lakua como el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se han abstenido de contestar hasta el día de hoy. Esta situación se vive con preocupación en el seno de la plataforma y en las comunidades educativas del barrio, donde percibimos signos de negligencia y dejadez. Las comunidades educativas de Salburua se han sumado plenamente a este proyecto. Los equipos directivos y claustros de los centros, los Órganos Máximos de Representación (OMR) y las familias nos hemos unido en total sintonía con el proyecto. La asociación de vecinos Burdinbide también se ha sumado al planteamiento y nos ha expresado toda su solidaridad. Además, desde otras comunidades educativas se han puesto en contacto con nosotros mostrando gran interés en el proyecto. Las encuestas que realizamos a lo largo de la primavera también indicaban claramente que la inmensa mayoría de las familias apoyan y ratifican el proyecto, habiendo superado el 75% de participación en la misma.

Las administraciones, mejor que nosotros, saben lo difícil que es garantizar y promover la participación en cualquier iniciativa, teniendo en cuenta los datos de abstención de las últimas elecciones municipales.

El grado de acuerdo con el proyecto de las familias encuestadas ha sido del 99,7%. Y muchas familias se han mostrado dispuestas a participar activamente, a integrarse en grupos de trabajo e incidir en el desarrollo de estrategias diferentes.

Teniendo en cuenta estos datos, solicitamos una vez más al Departamento de Educación de Lakua y al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que abran la vía del diálogo y estén a la altura de las circunstancias y la reivindicación de todo un barrio.

Desde la Plataforma proponemos la coordinación de agendas para poner en marcha una mesa de negociación en el mes de enero donde acordar dónde, cómo y en qué plazos se construirá esa cocina. Si no lo hiciéramos,

las comunidades educativas del barrio, especialmente las familias, no lo entenderíamos y, como plataforma, nos veríamos inevitablemente obligados a dar otro tipo de pasos.

Nuestro barrio ha manifestado una necesidad viva y una petición muy clara.

Como es de entender, la alimentación de nuestros/as alumnos/as e hijos/as es un tema que nos preocupa enormemente y vamos a mantener firme la demanda mientras los/as responsables políticos/as dan pasos firmes y contundentes. Tenemos claro que encauzar el asunto es sólo una cuestión de voluntad política y consideramos que estamos hablando de un planteamiento que es viable y real desde un punto de vista técnico. Demos pasos juntos, pues.

Destacar también, en este contexto, que todos los hechos acaecidos en el comienzo de curso ligados a los comedores escolares, la falta de calidad de la comida transportada y el enfado y preocupación generalizada de las familias usuarias del comedor confirman sin duda nuestros planteamientos. Estamos observando claramente que el camino emprendido a principios de año es la clave para el cambio de paradigma del modelo de comedor. En el contexto de los comedores escolares defenderemos hasta el final la alimentación, la salud, la formación, el cuidado y la certeza de nuestros hijos e hijas, no permitiendo que nadie juegue con ello.

Por ello, hacemos un llamamiento a todas las comunidades educativas de la ciudad de Vitoria-Gasteiz para que desarrollen proyectos de barrio, de centro y comiencen su andadura en la misma dirección. La Plataforma Salburuak Bere Sukaldea muestra, a través de estas líneas, toda la voluntad de colaborar y compartir experiencias. Os emplazamos a contactar con nosotros/as y os manifestamos nuestro compromiso de caminar juntos. Porque seremos más fuertes caminando juntos/as: iorganicemos comunidades educativas!